

Gustavo Carrero: ekintzailetasun esperientziak

2007/11/13

Pasa den azaroaren 8an, eguerdiko 12:00etan eta Bidasoako Campusean, bai LAEM 1eko ikasleak eta baita ere ekintzailetasunean interesa duten pertsona guztiek, Gustavo Carrero-ren hitzaldia entzuteko beta izan zuten.

Hitzaldiaren gaia, ekintzailetasunaren inguruan dituen esperientzia eta bizipenak izan ziren.

Gustavo Carrero, Danka Multimediako sortzailea izan zen eta Agoranet Grupo de Comunicación-eko Zuzendari ere bai. Egun, energia berrizialeen proiektuetan dago murgilduta eta hainat arlo ekonomikotan bultzatu ditu negozio berriak, esaterako: e-business, komunikazioa, argitalpenak, aholkularitza eta jakiak,... Aldi berean, hizlari bezala parte hartu du estatu mailan garatu diren hitzaldi, jardunaldi eta formazio ekintzatan.

